

Berreskuratetik geroztik Generalitateko gobernuaren ekintzarik garrantzitsuenetakoa bat hizkuntz normalizazio prozesua bultzatzea izan da. Kataluniako berrezko hizkuntza gisa katalanaren funtzio publiko guztien berreskurapenean datzan prozesu soziala —demokraziaren berrezarpena baino lehen hasitakoa— herritarren artean zeharo zabalduko helburua zen, gero Autonomi Estatutuak jasoko zuena —batez ere 3. artikuluan— eta Kataluniako hizkuntz normalizazioaren 7/1983 Legeak indar parlamentarioen aho bateko kontsentsuarekin martxan ipinitakoa, hain zuzen. Konbentzimentu honetatik sortzen da Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorra, tresna gisa ulertua. Hau da, botere publikoek eta gizarte zibilaren agente nagusiek amankomunean dituzten hizkuntz politikako helburu handiak zehazten eta eguneratzen dituen tresna gisa hartzen da Plan orokor hau.

HIZKUNTZ NORMALIZAZIORAKO PLAN OROKORRA

Joan Solé i Camardons

Kataluniako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza

PLANAREN AURREKARIAK

1988aren amaieraz geroztik hizkuntz politikaren fase berri bat abiatu da, Plan orokorrean batzen diren iharduketa hauek hartzen dituen:

- Egoera soziolinguistikoaren eta berau transformatzeko aukeren analisia, gero titulu berri batekin argitaratuko zena: *Estudis i propostes per a la difusió de l'us social de la llengua catalana* (Hizkuntza katalanaren erabilera sozialaren hedapenerako azterlanak eta proposamenak, 1991).
- Gaur egungo marko juridikoak hizkuntz normalizazioari begira eskaintzen dituen aukerarik handienei buruzko azterketa.
- Hizkuntz Normalizaziorako Batzordearen organo lagungarri den «Kataluniako Generalitatearen Sare Teknikoa» urratsez urrats sendotzea.
- Hizkuntz Normalizaziorako Partzuergoa martxan ipintzea.
- Gizartearen antolaketa-eremu nagusietan hizkuntz zerbitzu sektorialak sortzea.

• Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Soziala sortzea, hau da, hizkuntz politikaren orientabideak, aholkuak eta partehartze soziala bultzatuko dituen organoa, Generalitatearen presidentea bera buru izango duena.

KONTSEILU SOZIALAK 1991KO ABENDUAREN 18AN HARTUTAKO ERABAKIA

Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialaren lehen osoko bilkuran, 1991ko uztailaren 19an, Generalitateko Gobernuak proposamen bat aurkeztu zuen, Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorren elaborazioan laguntza eskainiz. Kontseiluak hurrengo bileran, hau da, 1991ko abenduaren 18an, onartu zuen proposamen hori.

Planaren proposamenaren elaborazio-prozesua —1992aren hasieratik 1993ko uztaila arte luzatu dena— lan talde baten esku egon da. Lan talde hori Kontseilu Sozialaren Idazkaritzak eta Hizkuntz Politikaren Zuzendariorde eta Orokorrak, biek batera osatu dute, planifikazio estrategikoaren berezko metodologiaren arabera, hori hartu baita prozedurarik egokien gisa irizpide hauen arabera: aktore anitzek modu partehartzailean ezartzea helburu nagusiak ikuspegi urteanitez, malguki eta aldizka berrikusteko moduan, eta azkenik, egoera soziolinguistikoa bezalaxe beti aldatzen ari den errealitatearen bilakaerari egokitzeko moduan.

PLANAREN HELBURU OROKORRA

Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialak abenduaren 18an hartutako erabakiak jadanik aldez aurretik ezarria zuen Planaren helburu orokorra, bi mailatan banatzen dena, kolektiboa eta indibiduala:

1. Kataluniako berezko hizkuntza egunez egun erabiltzea instituzio publiko eta pribatuen erabilera publiko guztietan, eta iharduera guztietan menpekotasunik gabeko baldintzatan garatzea.
2. Kataluniako hiritar bakoitzaren hizkuntz eskubideak erabat errespetatzea iharduera publiko, profesional, kultural, sozial edota aisialdiko guztiei dagokienez, kontutan izanik botere publikoek eskubide horien iharduketa babesten edo anparatzen dutela, beti ere hizkuntz komunitate katalanak lurraldeko berezko hizkuntzarekiko duen eskubide kolektiboa hautsi gabe.

«Botere publikoek eta gizarte zibilaren agente nagusiek amankomunean dituzten hizkuntz politikako helburu handiak zehazten eta eguneratzen dituen tresna gisa hartzen da Plan orokor hau»

**«Hizkuntza
Katalanaren Kontseilu
Sozialak abenduaren
18an hartutako
erabakiak jadanik alde
aurretik ezarria zuen
Planaren helburu
orokorra, eta bi
mailatan banatzen zen,
kolektiboa eta
indibiduala»**

ANALISI ESTRATEGIKOA

Helburu orokor horretatik abiatuz, prozesuaren lehen fasean inguruaz zertu zen, eremu bakoitzean hizkuntzaren bilakaeraren joera edota gertakizunak esanguratsuenak identifikatzeko.

Ponentzia-batzorde bakoitzeko kideek identifikaturiko joeren balorazio kuantifikatuak —positiboa edo negatiboa— ahalbidetu zuen, lehen fase honen amaieran, hizkuntz normalizazioaren aldeko eta aurkako joera nagusiak aurkitzea. Aldekoak hauek lirateke: planifikazio estrategikoaren aukera positiboak hizkuntzan. Aurkakoak, berriz, normalizazioarentzako joera kaltegarriak lirateke.

HELBURUEN ETA NEURKETEN EZARPEN SISTEMA

Oinarri horretatik abiatuz ezarri ziren bai norabide estrategikoak, —hau da, aukera positiboak aprobetxatu ahal izateko egokiak diren norabideak— eta bai joera kaltegarriei aurre egiteko behar diren berariazko helburuak ere. Gero, norabide eta helburu horietatik abiatuz egituratu ziren maila altuagoko helburu azpisektorialak eta sektorialak, Planaren helburu orokorrarekin bat egin arte.

Gero, prozesuaren azken fasean, ponentzia-batzorde bakoitzeko kideek beren iritziz Planaren berariazko helburu bakoitza lortzeko egokien ziren neurri-proposamenak planteatu zituzten. Proposatutako neurriak lau irizpideren arabera eztabaidatu eta baloratu ziren: neurriaren sinplizitate edo sinpletasun maila; helburua lortzeari begira duen eraginkortasuna; bere ekonomikotasun erlatiboa —eskatzen duen baliabide-kopuruaren arabera—; eta azkenik, bere onargarritasuna, hau da, exekuzioan inplikaturiko sektoreen partehartzea lortzeko duen gaitasuna.

Urte t'erdiko lanaren ondoren, prozesu osoaren emaitza zera izan zen: 1993ko uztailaren 26an Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialak egingandako osoko bilkuran Generalitateko presidenteari aurkeztutako proposamena.

HIZKUNTZ NORMALIZAZIORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

Proposamen hori oinarritzat hartuz, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak koordinatu du —Hizkuntz Normalizaziorako Batzor-

dearen bidez— Planaren behin-betiko proposamenaren elaborazioa. Xede horrekin, Hizkuntz Normalizaziorako Batzordeak Planaren helburuak berretsi egin zituen 1993ko abenduaren 15ean eginiko bileran. Bide batez helburu horiek erakunde arduradun bakoitzari izendatu zioten, haiek lortzeko egoki diren neurriak gauza ditzan. Bestalde, azken etapa honetan parte hartu zutenen informazioa eta koordinazioa bermatzeko Lan Ihardunaldiak ospatu ziren Administrazio Publikoaren Eskolan, 1994ko urtarrilaren 17tik 20ra.

Horrela, Kontseilu Sozialak proposaturiko neurriak Kontseiluak berak jaulkitako balorazioaren arabera ordenatu dira: onargarritasun eta/edo eraginkortasun maila baxuko neurriak (berrogeita hamar inguru), baztertzeko modukoak diren ala ez erabakitzeko; izaera erabat politikoa duten kudeaketak edota erabakiak eskatzen zituztenak (140 inguru), beren bideragarritasuna baloratzeko; eta azkenik, elaborazio tekniko soilak behar zutenak (gainontzeko guztiak, hau da, 250 inguru), bakoitzaren iharduera-eremuko arduradun diren sailek lan zitzaten.

Talde-lanaren ildo honi dagokionez azpimarratu beharra dago Generalitateko sail batzuek Kontseilu Sozialetik jasotako proposamenak hautatu eta birmoldatzeaz gain helburu eta neurri berriak ere erantsi dizkiotela Planari. Horren emaitza dugu, hain zuzen, Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorren behin-betiko proposamena.

PROGRAMAZIO MAILAK ETA ZIKLOAK

Plan orokorraren izaera malgu eta eguneragarria plan estrategiko izatetik dator. Horixe da Planaren baliorik garrantzitsuenetako bat, ondorengo beste hau bezain garrantzitsua, alegia: normalizazio prozesuko aktore sozialik esanguratsuenek elkarlanean egindako erreferentzi puntu amankomun izatea.

Izaera ireki eta dinamiko horrek ahalbidetzen du Plana inguruko aldatetara egokitzea, ziklikoki izango dituen berrikusketen bidez; aldi berean, programazio maila desberdinak egoteak erraztu egiten du Plana egokitzea, zeren helburuen lorpenean parte hartu behar duten erakunde berezitasunak kontutan hartu behar baitira.

Aurrerago aurkezten den eskeman agertzen da Plan orokorraren programazio mailen eta zikloen arteko artikulazio hori.

«Proposatutako neurriak lau irizpideren arabera eztabaidatu eta baloratu ziren: neurriaren sinplizitate edo sinpletasun maila; helburua lortzeari begira duen eraginkortasuna; bere ekonomikotasun erlatiboa; eta azkenik, bere onargarritasuna, hau da, gauzatzean inplikaturiko sektoreen partehartzea lortzeko duen gaitasuna»


«Plan orokorraren izaera malgu eta eguneragarria plan estrategiko izatetik datorkio. Horixe da Planaren baliorik garrantzitsuenetako bat, ondorengo beste hau bezain garrantzitsua, alegia: normalizazio prozesuko aktore sozialik esanguratsuenek elkarlanean egindako erreferentzi puntu amankomun izatea»

Planaren hodeiertzak —kontuz, ez baita nahastu behar epe luzeko planen aurrikuspen estatikoekin— hainbat legegintzaldi aurrikusten du (gutxi gora-behera hamarkada bat), eta legegintzaldi bakoitzerako programa-marko bana ezartzen da, hau da, Planaren helburu eta neurrien aplikazioa legegintzaldi batean. Legegintzaldi bakoitzaren amaieran Plan orokorraren azterketa sakona egin daiteke, inguruaren analisi berri batekin —aukera positiboetan eta joera kaltegarrietan gertatu diren aldaketak baloratuko duena— eta berriro ere Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialaren laguntzaz.

Gero, programa-marko bakoitza urteko programetan banatu eta zehaztu egiten da, hau da, Plan orokorraren neurrien exekuzioan parte hartzen duten erakunde bakoitzaren urteko programetan. Programa-markoa urtero azter daiteke, aldaketa txikiak sartu ahal izateko. Azken kasu honetan Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialeko ponentzia-batzordeetako ordezkari gutxi batzuen laguntza izango dute.

1994-1996RAKO HIZKUNTZ NORMALIZAZIO PROGRAMA-MARKOA

1994-1996rako Programa-markoak bost eskuhartze-sektore ditu: Erabilera ofiziala eta hizkuntz eskubideak; Hezkuntza, ikerketa eta gazteria; Kultur industriak eta komunikabideak; Eremu sozioekonomikoa; eta Osasun eta Gizarte Institutuzioak. Bestalde, laguntzazko bi lurralde-sektore ere badira: Kultur eta lurralde harremanak alde batetik, eta Estandarraren hedapena eta ikerketa soziolinguistikoa bestetik.



Programa honek ezartzen ditu arloko helburuak, norabide estrategoak eta berariazko helburuak, guztira 23 eskuhartze-arlotan, 4 lurralde-arlotan eta 5 laguntza-arlotan. Berariazko helburuak, guztira, 104 dira, eta neurriak, berriz, 189.

Urteanitzeko neurri horiek sailkatzeko 9 mota bereizi dira: negoziál juridikoak (36 neurri), hizkuntz erabileraren arauak (11), subentzio eta laguntzak (18), proiektuen programazioa (32), barne zerbitzuak (12), sustapen eta hedapena (18), prestakuntza (28), hizkuntz aholkularitza (22) eta azterketa soziolinguistikoa (12).

Programazio sistemari dagokionez, neurri bakoitzak fitxa-marko bat du, ondoko elementu hauekin: berariazko helburuarekiko duen lotura, neurriaren deskripzioa, erakunde exekutatzailleak, interbentzio moduak, emaitzen aurrikuspenak, baliabideen aurrikuspenak, eta 1994-1996 legegintzaldiko urte bakoitzerako ebaluazio-irizpidea.

Jarraipen sistemari dagokionez, normalizazio sare bakoitzak bere jarraipen-bilerak (ekainean) eta ebaluazio-bilerak (azaroan) egingo ditu. Programazio eta Koordinazio Batzordeak —Programa-markoaren koordinaziorako organo teknikoa— jarraipen eta ebaluazioa egiterakoan oinarri gisa erabiliko duen informazioa sareen jarraipen bileretan jasotako informazioen sintesia izango da. Gero, ebaluazio-txostena bi erakunderi igorriko zaie, Hizkuntz Normalizaziorako Batzordeari, eta Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialari, Programa-markoaren urteko aplikazioa berregoki dezaten.

«Planaren hodeiertzak (kontuz, ez baita nahastu behar epe luzeko planen aurrikuspen estatikoekin) hainbat legegintzaldi aurrikusten du (gutxi gora-behera hamarkadabat), eta legegintzaldi bakoitzerako programa-marko bana ezartzen da, hau da, Planaren helburu eta neurrien aplikazioa legegintzaldi batean. Legegintzaldi bakoitzaren amaieran Plan orokorraren azterketa sakona egin daiteke»